

1. HIRIGINTZA INFORMAZIOA. AURREKARIAK.**1.1. GARAPENeko PLANEAMENDUA.**

1985eko Hiri Antolaketako Arauetan ez dago aurreikusia.

1.2. HIRI EGITURA.

Itziarko hiri egitura eratzen duen elementua da, herriko ekipamenduetako bat eta Itziarko plazetako bat izaki, bai kokapenagatik bai bere ezaugarriengatik.

1.3. ESPARRUAREN AZALERA. 1.809 m²**2. HIRIGINTZA ERREGIMENA.**

2.1. LURZORUAREN SAILKAPENA : HIRITARRA.

2.2. KALIFIKAZIO OROKORRA : Komunitatearen ekipamenduko zona: kirol ekipamendua (11. artikulua: G.3). Erabilera eta jabari publikoko espazio libreak.

2.3. ALDERDIEN MUGAKETA : Mugaketa egungo egoerarekin bat dator. Aldameneko 16 HA alderdiaren hirigintza garapenaz, aipatu hirigintza alderdiaren lurzatiketa eta gauzapenaren ondoriozko espazio libreen azalera aregotuko da.

3. PROPOSATUTAKO ANTOLAMENDUAREN IRIZPIDE ETA HELBURUAK.

Plazaren esparruaren azalera areagotzea, 16 HA alderdiaren garapenaz sortutako espazio libreak gehituz.

3.1. KALIFIKAZIO XEHEKATUA.

Kiroletako sistema orokorra: Itziarko pilotaleku estalia.	834 m ²
Plaza publikoa.....	220 m ²

3.2. PROBETXAMENDU, ERAIKUNTZA, JABARI ETA ERABILERA BALDINTZAK.

Probetxamendua. Ez da ezarri. Behar izanez gero, pilotalekuko zerbitzu osagarriak berregokitu edo areagotzea.

Eraikuntza. Pilotalekua finkatzea.

Erabilera Oro har, 12. artikuluen araberakoa.
Plaza, haur jolasak, pilotalekua.

3.3. EKIPAMENDU, HIRITARTZE ETA KUDEAKETA BALDINTZAK.

Dagozkion obra proiektuen araberakoak.

Handitze lanik eginez gero, desjabetze sistema baliatuko da beharrezko diren lurrak eskuratzeko. Handitze lanak egiteko aldameneko zonak hartzean, ez da beharrezkoa izango ez planeamendua aldatzerik ez lurzorua birsailkatzerik.